

Aur elbarria

Zeruko Argia, 674. zk., 1976-02-08: 8.

Gure ekintzak, gure semeak bezala, osoak eta erakusgarriak nahi izaten ditugu.

Gehienetan ere hala izango da noski.

Baina gehienetan ekintzak eta jaiotzak ez dira Belenen bezala, emeki, etortzen, forzeps-bideetatik baino, eta burni hoiak aurraren buru-muinak ikuitzen dituztenean, elbarritzen dute aurra.

Onela markatuta izan zen umea ez da gero, urteak zehar, egonaz, bere gisa sendatu.

Nahi da, bai, orain, adindu den aur aundi hau munduan gizon bezala erakutsi; baina izketan asten den bezain laister erakusten du totolo-baldarra, eta hala, gure baserrian itzai izateko ere balio ez duen hau ez du inork auzo-lanetarako sozio bezala artu nahi.

Urteak aurrera, eta aur elbarria umezurtz geratu zaienean, asi dira jeneralian familikoak estuasunetako laguntza bila.

Badakigu, orain zirujia estetikak arrakasta aundia duela; sudur aundiak txikitzen eta okerrak zuzentzen ditu, kokozpeak kentzen, begi-inguruko ximurrak tiratzen; baina, ara, ezin ditu forzepsek aurgintzan egindako kalteak osatu.

Bixtan da gaur berrogei urteko aur elbarri hau ez dela inon gizon bezala erantzuteko gauza.